

Pribatutasun politika

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoak, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea betez, izaera pertsonaleko datuak biltzeko eta lantzeko sistemari buruzko beharrezko informazioa ematen dizu, bere pribatutasun politikaren barruan dagoena, eta zuk irakurri eta onartu beharko duzu, horrekin ados bazaude, zerbitzu honen formularioa bete aurretik: Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoak adierazten du errespetatu eta bete egiten dituela Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean (hemendik aurrera IPDB-LOPD) jasotzen diren xedapenak eta izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan jasotzen diren lege aurreikuspenak, eta horretarako, bere esku dauden baliabide tekniko guztiak jarri ditu, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoari ematen dizkiozun datuen galera, erabilera desegokia, aldaketa, baimenik gabeko sarrera eta eskuratzeko desegokia saihesteko, Interneteko segurtasun neurriak gainditzea ezinezkoa ez izatearen kalterik gabe.

Hori guztia dela eta, bere datuen babeserako politikaren berri ematen dizu, zure borondatez erabaki dezazun zure datu pertsonalak Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoari eman nahi dizkiozun, eta jakinarazten dizu, baita ere, formulario batean zuk emandako izaera pertsonaleko datuak, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoa jabe izango den eta bere erantzukizun pean egongo den izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuan jasoko direla. IPDB-LOPD-ean aurreikusitakoa betetzeko xedez, berariaz adierazi behar da helbidea 48006 Bilbon, Atxuri kaleko 6an, duen Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoa dela <http://bizieuskotren.com> Interneteko helbidean dagoen webgunean horretarako dauden formularioetako edozeinen bitartez zuk emandako izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren helburuei, edukiari eta erabilerari buruzko erabakiak hartuko dituen

Zure datuak Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoaren fitxategian sartu ahal izateko, beharrezkoa izango da zalantzarik gabeko zure baimena. Hori, pribatutasun politika hau onetsiz eman ahal izango duzu, datuak eskatzeko formulario bakoitzaren aurretik agertzen den Sociedad Pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A.-ren PRIBATUTASUN POLITIKA IRAKURRI DUT ETA BERARIAZ ONARTZEN DUT aukera hautatuz.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoari ematen dizkiozun datuen helburua, bere jardunbidea aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren jardueretako edozein garatzeko erabiltzea izango da. Eta, horrez gain, zure datuen jakinarazpena beste batzuei emateko ere zalantzarik gabeko zure baimena beharko da, eta hori, datuak eskatzeko formulario bakoitzaren aurretik agertzen den Sociedad Pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A.-ren PRIBATUTASUN POLITIKA IRAKURRI DUT ETA BERARIAZ ONARTZEN DUT aukera hautatuz egin ahal izango duzu. Zuk, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoaren fitxategietan dauden zure datu pertsonaletara sartzeko, haiek zuzentzeko, baliogabetzeko edo haien kontra agertzeko aukera izango duzu, eta gauza bera zure datuekin erlazionatuz gertatu izan diren jakinarazpenekin, zure bidalketa eta jaso izana frogatzen duen edozein baliabideren bitartez eskatuz. Zure eskubideak gauzatzeko, helbide honetara zuzendu zaitezke gutun bitartez:

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate Publikoa, Atxuri, 6, 48006 Bilbo, edo bizi@bizieuskotren.com helbide elektronikora